

**EUSKADIKO PARKE TEKNOLOGIKOAREN 30. URTEURRENA
30 ANIVERSARIO DEL PARQUE TECNOLÓGICO DE EUSKADI**

2024-02-09 Donostia-San Sebastián 09-02-2024

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Eusko Legebiltzar buru andrea, Sailburua, Gipuzkoako Ahaldu Nagusia, Alkatea, herri agintari eta ordezkariok, Gipuzkoa eta Euskadiko Parke Teknologikoen arduradun eta kideok, jaun-andreok, egun on!

Zorionak eta eskerrak emateko eguna da gaurkoa. Baita merezitako aitortza egiteko ere.

Urtemugek atzera begiratzeko aukera eskaintzen digute. Non geunden jakiteko eta, batez ere, nora iritsi garen jabetzeko.

Duela 30 urte, Euskadik aldaketa garaia bizi zuen. Batez ere industriaren arloari dagokionez.

Herri bezala gure ereduaren gaineko hausnarketa partekatu eta apustu arriskatu bat egin genuen: Dibertsifikazioa, Espezializazioa, Teknologia eta Talentua. Ardatz hauetan indarra jartzea erabaki genuen.

Politika publikoak zehazterako orduan ezinbestekoa da helmuga bat jartzea. Norabidea eta nora iritsi nahi dugun erabakitzea. Bada, seguru nago duela 30 urte nekez irudikatuko genuela Euskadiko Parke Teknologikoek gaur egun duten osasuna izatea.

Seguru nago, baita ere, urtemuga honek lagunduko digula 30 urte barru nora iritsi nahi dugun irudikatzeko, “infiniturantz” begiratzuz.

Gaur, hazia erein eta proiektu hau zaintzen, babesten eta hazten lagundu duten pertsoneri gure esker ona adierazten diegu.

Parke teknologikoa den zuhaitz eder honek fruitua eman zezan ongarria eta ura behar zituen eta HORI izan da euskal gizartearen papera hiru hamarkada hauetan zehar. Euskadik egindako apustua irmoa izan da eta gaur emaitzak ikusten ditugu.

Este aniversario es también una invitación a mirar al mañana: “infiniturantz”.

Volver a imaginar un escenario futuro y compartirlo para ir avanzando juntas, juntos.

La visión a largo plazo, la colaboración, son fundamentales para elaborar las políticas públicas.

Planificar. Realizar unas políticas reconocibles, basadas en el rigor y el compromiso compartido, la corresponsabilidad que ejemplifica este Parque.

Debemos volver a acertar HOY a la hora de anticiparnos a la denominada NUEVA ECONOMÍA. Contribuir a dar respuesta eficaz al reto verde y al reto digital. Apoyar a las empresas, la industria y los servicios avanzados que generen nuevos empleos que ayuden a garantizar nuestro bienestar.

Los Parques Tecnológicos de Euskadi sois un MODELO. Estáis liderando la transformación y el progreso digital, tecnológico y social de nuestro país, contribuyendo a nuestro crecimiento económico y calidad de vida.

Belaunaldi berriekin batera egingo dugu eraldaketa hau.

Belaunaldi berriek aurrekoek eraikitakoaren gainean eraikitzen jarraituko dute. Baina horretarako AUKERAK eskaini behar dizkiegu: lan baldintza onak, soldata onekin eta kontziliaziorako erraztasunekin.

Guztion xedea da aukera horiek sortzen jarraitzea.

Herri honek duela 30 urte asmatu zuen bezala, gaur ere asmatuko dugu.

Hazia ereiten ari gara eta etorkizuneko zuhaitzak fruitu ederra ere emango digu.

Jarraitu dezagun “infiniturantz” elkarrekin eta ilusio guztiarekin.

Zorionak eta eskerrik asko!